

Hizkuntza izanik giza-fenomenorik sozialenetako bat, gizakien artean sortzen diren aldaketek eragin berezia eta zuzena dute hizkuntzen barnerabilpenean nahiz hizkuntzen arteko mintzaldaketan. Gizakien arteko oinarrizko bereizketetako bat sexuarena da. Historian zehar eta baita gaur egungo gure gizartean ere, emakumezkoek eta gizonezkoek «rol» eta funtzio desberdinak betetzen dituzte. Hori dela eta, interesgarria iruditu zaigu aztarna hau jarraitu eta euskararen erabilpen errealean izan dezakeen eragina aztertzea. Ikerketa desberdin batzuren emaitzak aztertu ondoren, hainbat baieztapen formulatzeko moduan gaudela iruditu zaigu eta komenigarritzat jo dugu ondorio hauek plazaratzea.

EUSKARAREN ERABILPENAREN FEMINIZAZIOA

Kike Amonarriz

SIADeco Ikerketa-taldeko partaidea

1. IKUSPEGI HISTORIKOA

Euskararen bilakaera historikoan bi izan dira emakumearen papera-
ren inguruan somatu diren jarrerak:

- Nekazal giroko herrietan, duela hamarkada batzuk arte, emakumeek erdara erabiltzeko joera nabarmenagoa erakutsi ohi dute (udal-erri euskaldun txiki gehienetako joera frogatua izan da hau).
- Euskararen birreskurapen-prozesuan berriz, emakumezkoek paper berezia jokatu dute, irakaskuntza alorrean batez ere.

Egoera minoritarioan, sexu bakoitzak hizkuntzaren aurrean izan dituen jokabide desberdinei buruzko bibliografia ez da oso zabala. Derri-
gogorrezkoa iruditu zaigu ordea, planteatu dugun gaiarekin zerikusi zuzena duten bi artikulua aipatu eta laburbiltzea.

1.1 LL. V. ARACILEN «L'ESPRIT DE LES DONES»

Sexu bakoitzak, hizkuntzaren minorizazio-prozesuan zehar izan dituen portaera desberdinak adierazten dizkigu Ll. V. Aracilek, «*L'esprit de les dones*» izeneko artikuluan.¹

Artikulu honetan defendatzen dituen oinarritzko ideiak honako hauek dira:

Historikoki elebitasuna bi transizioen arteko epea da: elebiduntzea lehena («beste» hizkuntza ikastea), eta elebakartzea bigarrena (jatorriz-ko hizkuntza galtzea).

Elebitasun-fase horretan urrats hauek bereizten ditu:

- Beste hizkuntza ikasi.
- Beste hizkuntza kolokializatu.
- Beste hizkuntza jatorrizko bihurtu (urrats hau bi belaunaldien artean gertatzen da)
- Jatorrizko hizkuntza baztertu eta galdu.
- Defendatzen duen hipotesi nagusia hau da: emakumeen elebiduntzea, gizonezkoena baino beranduago hasi eta lehenago amaitzen dela.
- Gizonezkoak lehenago bilakatzen ziren elebidun eta elebitasun-egoera denbora-epe luzeagoan mantentzen zuten. Etapa elebiduna ordea, laburragoa izan ohi zen emakumezkoen artean eta aipatu berri ditugun urratsak lehenago «erretzen» zituzten.
- Badakigu oro har, gizonezkoen bizitza, emakumezkoena baino «zabalagoa», «irekiagoa» eta «aberatsagoa (izan) dela, alegia, gizonezkoen aukera eta iharduera-gama zabalagoa izan dela.
- Iniziatibak gizonezkoek hartu ohi dituzten gizarte batean, «beste» hizkuntzaz jabetzeko inizatiba (eta aukerak eta beharrak) noski, gizonezkoena izan ohi da.
- Emakumezkoek jatorrizko hizkuntza uztea erabat loturik dago, beste hizkuntza jatorrizko bihurtzearekin (eta hizkuntza transmisioarekin).
- Guzti honen ondorioz, mementu batean, elebakartasuna feminoa eta hurrena bihurtzen da, eta elebitasuna gizonezko helduena.

Honaino laburturik Aracilek bere artikuluan agertzen duena. Tesi hau

1) Aracil L.V. (1983). *Dir la realitat*, Ed. Països Catalans. Barcelona.

2) Sánchez Carrión «Txepetx». (1981). La Navarra Cantábrica in *Fontes Linguae Vasconum*. Núm 37. 19-99. or. Institución Príncipe de Viana. Iruñea.

«Neskek, "gizarteratze" ereduak imitatzekoan erdara hartu eta euskara utzi egin ohi zuten, eta mutilek ordea, euskararekiko atxekimendu handiagoa izan ohi zuten; euskara beraientzat nortasun-hizkuntza baitzen»

oso baliagarria zaigu Euskal Herriko udalerrri txiki euskaldunetan eta elebakartze-prozesuan dauden herrietan, hizkuntza portaeretan ezagutu ahal izan ditugun sexuen arteko desberdintasunak esplikatzeko.

1.2 JOSE M^a SÁNCHEZ CARRIÓNEN «LA NAVARRA CANTÁBRICA»

Jose M^a Sánchez Carrión «Txepetx»ek ere ukitzen du gaia «*La Navarra Cantábrica*» artikuluan².

Idazki horretan, egoera jakin baten irakurketa egiten du: Nafarroako Malerrekakoa, duela 15-20 urte.

Egoera hori Aracilek marrazten digun bilakaera historikoaren une jakin batean kokatzen da, eta ia erabat bat dator han ateratako ondorioekin, nahiz eta azken urte hauetako sexuen arteko «rol» banaketa desberdinek eta egoera eta errealitate soziolinguistikoaren bilakaerak aldatetarako eragin dituzten.

Sánchez Carriónek azaltzen digunez, zonalde honetako neskek, mutilek baino lehenago izan ohi zuten lehen harremana erdararekin, baita etxean bertan ere («beste» hizkuntza jatorrizko bihurtzeko fase aurretatua), eta errazago moldatu ohi ziren beraz, eskolaratze-prozesura (garai haietan maistra gehienak erdaldunak ziren).

Egilearen esanetan, gizakiak heldutasunera iritsi bitartean beti imitatu ohi ditu aurreko belaunaldiaren jokaerak. Neskek, «gizarteratze» ereduak imitatzekoan erdara hartu eta euskara utzi egin ohi zuten, eta mutilek ordea, euskararekiko atxekimendu handiagoa izan ohi zuten; euskara beraientzat nortasun-hizkuntza baitzen.

Gaztarora iristean mutilek euskara izan ohi zuten erabilera-hizkuntza eta erdara kasu jakinetarako harreman-hizkuntza modura erabiltzen zuten. Nesken artean, kuadrila eta talde-harremanak ahulagoak ziren, adiskidetasun jakinen aldeko joera nagusitzen zelarik. Honen ondorio bezala:

- Nesken artean erdaraz egiten zuten maiz, era honetako harremanak edo harreman intersexualak zabaltzeko modu bezala (festetako alterneak...).

- Mutilen artean euskaraz jakitea zen sozialki behinena eta nesken artean berriz erdaraz ez jakiteak marginalizazioa zekarren.

Testuinguru honetan eta garai horretan bizi ziren emakumeek gainera, erdarazko harreman-mota gehiago gara zitzaketen: irratia, telebista, herriz-herriko salmenta, irakasleak, erosketak-kontsumoa, medikuak... Gizonezkoen ihardueretan ordea, euskararen euskarririk finkoenak gorde izan dira: apostuak, herri-kirolak, musa, tabernak...

3) Siadeco. (1993). Euskararen erabilera leku publikoetan in *BAT-Soziolinguistika aldizkaria* 9. zk. EKB. Donostia.

2. JOERA BERRIAK

Funtsean esango genuke, sexuen arteko rol-banaketa aldatzen doan heinean eta sexu bakoitzak betetzen dituen funtzioak eta hartzen dituen iharduera-esparruak aldatzen doazen heinean, sexuen arteko portaera linguistikoa ere aldatu egiten dela, eta aldatzen ari dela.

Euskal Herriko zonalde euskaldunetako herri txikietako gizon-emakumeen arteko hizkuntz portaera desberdinak ezagunak zitzaizkigunez, oso erakargarriak iruditu zitzaizkigun, joera historiko horren norabide nagusiaren aurka egiten zuten azterketetako lehen datuak.

Hainbat herritako datuak bildu ondoren, honako hipotesi hau tajutzeraz iritsi gara: Gipuzkoako udalerrri hiritartuetan (joera hau Hegoaldeko zonalde hiritartuetan gerta daitekeela iruditzen zaigu, baina ditugun datuak Gipuzkoakoak direnez, eta egoera soziolinguistikoak desberdinak direnez, hipotesia mugatu egin dugu) eta batez ere gazteen artean, emakumezkoek, gizonezkoek baino euskara gehiago egiten dute.

Ikus ditzagun datuak hurrengo taulan (datu hauek, aipatzen diren herrietako udalek Siadecori eskatutako azterketa eta egitasmoetatik ateratakoak dira. Tolosakoak berriz, bertako Euskara Zerbitzuak leku publikoetako hizkuntza erabilera neurtzeko Siadeco metodoa erabiliz jasotakoak dira)³:

		HAURRAK 0-14		GAZTEAK 15-25		HELDUAK 26-64		ZAHARRAK 65>(*)		GUZTIRA	
HERRIA	URTEA	Emak.	Gizon.	Emak.	Gizon.	Emak.	Gizon.	Emak.	Gizon.	Emak.	Gizon.
Donostia	1994	25.5	23.3	13.6	8.7	8.1	7.4	7.9	9.3	11.8	10.8
Tolosa	1994	63.7	52.7	50.0	30.6	29.5	27.2	42.3	42.2	40.3	34.8
Pasaia	1994	33.6	29.5	24.7	17.6	13.2	11.0	11.3	10.6	18.7	16.3
Irun	1994	13.4	11.3	6.7	3.8	8.5	4.9	2.1	4.8	8.5	6.2

(*) Tolosako kasuan, 61 urtetik gorakoak zahartzat jotzen dira.

Beltzez, gizonezkoek emakumezkoek baino erabilera-portzentaia altuagoa duten kasuak.

Datuen arabera, kasu guztietan eta adin-multzo guztietan emakumezkoek gizonzkoek baino euskara gehiago egiten dute, zaharrenean adin-multzoan izan ezik. Adin-multzo honetan, bi kasutan gizonzkoek emakumezkoek baino euskara gehiago egiten dute, batean emakumezkoek gehiago eta beste batean berdintsu, sarreran deskribatu dugun joera historikoaren azken aztarna gisa.

Sexuen arteko desberdintasunik handienak berriz, gazteen artean gertatzen dira. Neskek darabiltena baino bi bosten gutxiago darabilte mutilek euskara oro har. Aldea beraz, nabarmena da.

Gazteen portaera zehazkiago aztertzen duten datuak ere baditugu (espezifikoki gazteen mundua aztertzen zuten ikerketetatik aterata):

HERRIA	URTEA	10-14 urte		15-19 urte		20-24 urte		GUZTIRA	
		Neska	Mutil	Neska	Mutil	Neska	Mutil	Neska	Mutil
Donostia (*)	1991			9.8	7.7	13.4	7.3	11.1	7.6
Hemani	1992	39.6	29.3	20.4	16.7	14.7	12.6	26.3	19.7
Orio	1992	85.6	78.4	55.8	53.7	40.0	50.7	60.1	58.6

(*) Donostiako ikerketan bi adin-multzo hartu ziren: 15-20 eta 21-25 urte bitartekoak

Datu hauek, berretsi egiten dituzte aurreko baieztapenak, salbuespen bakarra Orion topa daitekeelarik gazterik helduenen kasuan. Ez da ahaztu behar ordea, beste udalerrien aldean, Orio oso herri euskalduna dela eta beste ezaugarri soziolinguistikoak aurkezten dituela.

Sexuen artean erabilpenean aurkitu dugun portaera desberdin bera aurkitu dugu bestalde, helduen euskararen ikasketa-prozesuan. Izan ere, eta HABEk eskainitako datuen arabera, 1993/94 ikasturtean, euskara ikasten ari zirenen artean %61.5 emakumezkoak ziren eta %38.5 gizonzkoak.

3. PORTAERA BERRIEN INGURUKO HIPOTESIAK

Datu hauen arabera, garbi dago azken urte hauetan aldatu egin direla sexu desberdinen joerak hizkuntz erabilerarekiko, eta garai batean neskek nekazaritza eremuetan erdararekiko joera nabarmenagoa baldin bazuten ere, gaur egun, eta batez ere neska gazteek, euskararekiko atxekimendu-maila altuagoa azaltzen dutela.

Azken hamarkada hauetan bestalde, aldaketa sakonak gertatu dira euskal gizartean, dagokigun gaiaren inguruan:

- Euskararen aldeko kontzientzia bizkortu egin da eta motibapenari, ezagupenari nahiz erabilpenari dagokienez, egoera gune hiritartuetan hobetu egin da.
- Euskara batez ere, nekazaritza munduko hizkuntza izatetik, hizkuntza hiritarra izatera pasa da.
- Emakumearen egoera sakonki aldatu da eta gizartean betetzen dituen rol-ak ere aldatu egin dira.

Guzti honen ondorioz sexu bakoitzak hizkuntzaren aurrean zuen jokamoldea egokitu egin du baldintza berrietara, une honetan euskararen erbilera «feminizazio»-prozesu batean sartu dela esan genezake elarik, batez ere adin gazteetan.

Praktikan, eta hipotesi modura bada ere, hiru arrazoi nagusi aurkitu ditugu aldaketa sakon horiek esplikatzen:

- a) Euskararen minorizazio-prozesuan (erdararako elebiduntzea) emakumeek familietan transmititu behar zuten hizkuntza erdara zen, euskararen transmisioa segurtaturik zegoelako edo sozialki axola ez zitzaiolako.

Normalizazio-prozesuan ordea (euskararako elebiduntzea) euskara da transmisitu behar den hizkuntza.

Hizkuntza transmisioaren eta oro har, haurren heziketan gizonaek gaur egun presentzia handiagoa baldin badute ere, funtzio hau batez ere, emakumeek garatzen dute (amak izan ala hezitzaile edo zaintzaileak izan) eta beraz beren inplikazio linguistikoa ere handiagoa da.

- b) Perspektiba eta errealitate profesionali dagokienez, emakumeek bete ohi dituzten lanbideetan euskararen eskaera eta erabilpena altuagoa da. Adibide modura honako hauek aipa genitzake: haurren zaintzaileak (datu zehatzik ez badago ere, garbi dago erabat emakumezkoak direla), administrariak (gehienak emakumezkoak eta hizkuntz eskakizunak gainditu behar dituztenak), irakasleak, erizainak...

Nekez aurkituko dugu horien parekorik «gizonaek» lanbideen ar-

«Datuen arabera, kasu guztietan eta adin-multzo guztietan emakumezkoek gizonaek baino euskara gehiago egiten dute, zaharrenean adin-multzoan izan ezik»

4) M^a José Molina /Itziar Zuriarrain. (1994). Nerabezaroa, hautapenerako garaia in *Ikasketa eta bokazioari buruzko orientazioa, bereizkeriarik gabe erabakia hartu ahal izateko*. Emakunde. Gasteiz.

5) EUSTAT. (1994). *Euskal urtekeri estatistikoa* 93. 214-218 or. Eustat. Gasteiz.

tean.

M^a José Molinak eta Itziar Zuriarrainek Zamalbide Lanbide Heziketa Institutuan egindako ikerketaren ondorioetan dioten bezala⁴ «... mutilek Teknologia bezalako gaiak hautatzen dituzte eta Hizkuntzak erdeinatzen. Nesketan ez da hizkuntzenganako erdeinu hori gertatzen, eta Teknologia, harrera ona egiten dioten arren, eta hortxe dago kontraesana, ez da sartzen haien asmotan lanbide aukerabide gisa (inolako teknologiarik) eta nesken nahime-nak errealizazio profesionalaren arlo zabalean beste eremu batean kokatzen dira, batez ere "Lana besteei laguntzeko egitea" bezalakoetan».

EUSTAT erakundeak argitaratzen dituen datuek ere oso garbi azaltzen dute bereizketa hori⁵. Unibertsitate-hezkuntzan matrikulatutakoen artean emakumeak %51.2 baldin badira ere goi-eskola teknikoe-tan %23.0 besterik ez dira. Ondorengo ikasketa-adar hauetan ordea oso proportzio altuak hartzen dituzte emakumeek: filosofia eta hezkuntz zientzietan %73.8, filologia, geografia eta historian %68.0, OHoko irakaslegoaren prestakuntzan %75.9, erizaintzan %87.4, gizarte-lanan %89.6, etab. Hizkuntzak ikasteko matrikula ofiziala egin dutenen artean ere emakumezkoak %74.0 dira.

Alde izugarri hauek noski gizonetzkoek eta emakumezkoek gizartean bizi duten egoeraren ondorio dira, eta ez abiapuntu. Baina bestalde, hizkuntza portaera desberdinen eragile ere badira.

c) Azkenik, eta eskolorduz kanpoko iharduerei dagokienez, neskek eta mutilek oso praktika desberdinak dauzkate (egin ditugun azterketetan bereizketa hori oso garbi geratu da).

Mutilengan esate baterako, talde-kirolek eragin berezia dute (futbolak, nagusiki). Askoz ere gehiago dira mutilez bakarrik osatutako kirol-taldeak eta kirol-esparrua gainera, oraindik ere oso esparru erdaldundua da.

Nesken presentzia bestalde, askoz ere nabarmenagoa da beste era bateko ihardueretan: ludotekak, aisialdi-taldeak, dantza-taldeak...

4.- ONDORIOAK

Guzti honen ondorioz esan genezake sexuen arteko rol-banaketak eragin zuzena duela egoera minorizatuan dauden hizkuntzen erabilpenean.

Azterketa honen emaitzarik nagusiena azken batean honako hau da: gaur egun eta zonalde hiritartuetako gazteen artean batez ere, emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago egiten dutela euskaraz beren ohizko harreman pertsonal eta profesionaletan.

Eta honek noski, zerikusi handia du gizonezkoek «gidatutako» gizar-te honetan euskarari eskaini nahi zaion etorkizunarekin.

«Datu hauen arabera, garbi dago azken urte hauetan aldatu egin direla sexu desberdinen joerak hizkuntz erabilerarekiko, eta garai batean neskek nekazaritza eremuetan erdararekiko joera nabarmenagoa baldin bazuten ere, gaur egun, eta batez ere neska gazteek, euskararekiko atxekimendu-maila altuagoa azaltzen dute»